


BERTSOLARIAK

**ERREGE EGUNEKO
BERTSO-SAYOA**

(1962)



AUSPOA LIBURUTEGIA

SB-885

10214

ERREGE EGUNeko BERTSO-SAYOA

(1962)

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 10 -

Colección Auspoa - Plaza de Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta.

Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

BERTSOLARIAK

**ERREGE EGUNEKO
BERTSO-SAYOA**

(1962)

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 201—1962
N.º DE REGISTRO S.S. 823—1962

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
GOIZEKO SAYOA... ..	11
Agurra	13
Lexoti ta Ibareguren	25
Garmendia ta Aguirre	33
Lizaso ta Basoarte	39
Iztueta ta Mugica... ..	45
Aguirre ta Garmendia	53
Iztueta ta Lexoti	61
Ameriketara dijoan semea	69
Aguirre ta Lexoti	79
ARRATSALDEKO SAYOA... ..	83
Agurra	85
Pelotariak	91
Muslariak	99
Guardia-zibillak eta ijituak	107
Zuriak eta beltzak	115
Puntuan	123
Antonio Arrue jaunaren itzak	129

ITZAURREA

*Aurtengo (1962) Errege egunean bertso-sa-
yo bikain bat izan zan Donostian: goizean zor-
tzi bertsolari gazte ta arratsaldean igazko txapelketan aurren gelditu ziran lau bertsolariak.*

Goizekoak beren arteko txapelketa zuten eta gogotik sayatu ziran. Txapel batek ezin bi buru estali ta batek irabazi zun, bañan danak ere berdintxu ibilli ziran.

Arratsaldekoa etzan txapelketa izan, ez ta ere nolanaiko sayoa. Lau bertsolariak bi bikotetan jarri zituzten: igazko txapelduna ta laugarrena bigarren ta irugarrenaren kontra. Beraz, Basarri ta Xalbador, Uztapide ta Azpillagaren kontra. Bikote bakoitzak bestearen kontra jokatu

bear zun. Alako gayak eman zizkioten ere: muslariak, pelotariak, guardizibillak eta ijituak, beltzak eta zuriak. Lau bertsolariak gutxitan bezin ongi sayatu ziran.

Itzez itz jarri degu emen magnetofonoak bildu zuena. Asi zaitetz beraz lenbailen irakurtzen, Errege-eguneko sayo eder ura zure gogoan berritzen.

GOIZEKO SAYOA

Lexoti (Oyartzun)

Ibarguren (Lizartza)

Garmendia (Berrobi)

Aguirre (Azpeitia)

Kosme Lizaso (Oyartzun)

Basoarte (Zumaya)

Iztueta (Lazkano)

Mugica (Ormaiztegi)

A G U R R A

*Irigoyen-ek: Txapelketa lenbailen as-
teko zotza egingo degu emen dauden zor-
tziren artean, eta kantatzen asiko dira be-
reala. Momentu batean zai egon.*

(Puska baten ondoren):

Zotza egin da ta orrela gertatu da:

Lendabizi, Jose Luis Lecuona, "Lexoti"

Bigarren, Kasiano Ibarguren

Irugarren, Domingo Garmendia

Laugarren, Jose Aguirre

Bostgarren, Kosme Lizaso

Seigarren, Jesus Basparte

*Zazpigarren, Jose Migel Iztueta, "Lazkao-
Txiki",*

ta zortzigarren, Bizente Mugica.

*Lendabiziko agurra egingo dute banan
banan. Jose Luis Lecuona "Lexoti" asiko
da. Meseñez urreratu onera kantatzera.*

LEXOTI

Nagon tokitik ikusitzen det
zenbat arreba ta anai,
gaur emen dagon edertasuna
ez da topatutzen non-nai,
oinbat euskaldun urreratuta
bertsolayak gu're alai,
biotzetikan egun alai bat
desio dizutet danai.

IBARGUREN (1)

Alaitasunez bete beteak
gatoz zortzi bertsolari,
pozgarri pixkat emanaz gaur
ai geren Donostiari,
kaltegarritzat etzayo jungo
sayo au noski iñori,
ta lendabizi, jaunak, egun on
opa dizutet danari.

(1) Iburguren itxua da ta aldameneko bertsolariak besotik eldu ta laguntzen dio mikrofonoraño.

GARMENDIA

Leku ontara bildu gerade
zortzi bertsolari gazte,
ta Garmendiak borondate onez
danok agurtzen zaituzte,
gu bertsolari onak gerala
iñork ez dezala uste,
bañan konforme kantatutzeko
gerok dakigun ainbeste.

AGUIRRE

Lendabiziko agurtzen ditut
juradu biotzekoak,
eta ondoren onuntz bilduta
zaudeten gañuntzekoak
billera auek dira euskaldunak
alkar ezagutzekoak,
sarriagotan komeni leizke
gaurkoaren antzekoak.

LIZASO

Al baldin bada ez degu ein nai
oso itxura motela,
nik badakiat gazteak ere
intentziyua dutela,
gure euskerak bein bear da gaur
ez dauka egun ergela,
nere partetik anai-arrebai
egun on in dakiela.

BASOARTE

Egun on, jaunak, eman zaudeten
zar, gazte, igar da lori,
pobre, aberats, txiki ta aundi,
morroi eta agintari,
buru makurka agertu nayan
gatoz zortzi bertsolari,
eta biotzez eskatzen diyot
zeruan dagon Jaunari,
egun eder bat pasatutzeko
soya emateko danori.

IZTUETA

Sinis zazute onuntz elduta
gaur pozetan naguela,
batik bat beintzat anai-arrebok
alkartutzean onela,
nik ere agur nai nizuteke
beste lagunak bezela,
ongi etorri eta egun on
Jaungoikoak dizutela.

MUGICA

Nere bertso sayoa egin bear,
aditzalle maitiak,
olako egunak merezi baidi-
tu gaurkuan Donostiak,
goratu nai ditut au jarri
diguten Euskaltzaindiak,
olaxe jarri digula
olako bertso aldiak.

Irigoyen-ek: Zortzirik agurra egin dute. Juraduak ez du aintzat artuko agurra bere puntuaziorako. Emendik aurrerako bertso guziak bai, eta biñaka agertuko dira orain. Lenbizi Jose Luis Lecuona "Lexoti" eta Kasiano Iburguren. Mesedez etorri onera biok.

II

LEXOTI ta IBARGUREN

Irigoyen-ek: Lenbizi, puntu bana jarriko diegu. Jose Luis Lecuona Lexotiri:

Andrea etxean da
senarra bertsoan,

Lex.— oain bitarte egiña no
nik gauzoi prankotan,
bañon diru irabazten
nabillen lekutan
ni ola naillen bitarte.
ua egoten da lotan.

Bi gizon igualikan
ez gera munduan (1).

(P. M. Otaño)

Ibarg.—badakit arrazoya
orrek nola duan,
neronek e gauza bera
ai esango nuan,
askoz obetogo're
ikusi banuan.

(1) Egun ontan jarritako puntu asko bertso zarretatik artuak ziran. Aurrera ere, bertso ontan bezela, adierazi egingo degu nundik edo zehengandik artua zan. Sarritan ez da bertsolariaren izenik jakiten ta alakoetan "Bertso zarretatik artua" esango degu. Ezer esaten ez danean, festaren antolatzalleak asmatutako puntua da.

*Irigoyen-ek: Orain alkarrekin teman
egingo dute. Lenbizi bertso bi gai librean.
Asiera emango dio Jose Luis Lecuona Le-
xoti-k:*

Lex.— Etorri gera egun alai bat
pasatzeko esperantzan,
geuren erritik Donostiraño
gaur lenbiziko balantzan,
au entzutian nere lagun au
ni jarri niteke dantzan,
ni Ernani ortan ondo bizi naiz,
zu zer modutan Lizartza-n?

*Ibarg.—*Orren ordaña nere lagunai
esango diot onela,
gezurrik bate ezin agertu
egiz bear dan bezela,
ta sinistua nik bertso ontan
au esango dizutela,
lastima badet Lizartzan gutxi
ai egoten naizela.

Lex.— Beti lagunak billatzen ditu
Lizartzatikan jonikan,
ni ere lagun egiña nau ta
apenas daukan penikan,
soño ta bertso erririk erri
ibiltzen da oraindikan,
ta guk biyok eztugu pentsatzen
anayak ez geranikan.

Ibarg.— Alkar laguntzen sayatzen gera
ai gu beti alegiña,
t'ala bear du leku guzitan
kristau fiñaren griña,
zertako euki bata bestentzat
ala eraman eziña,
nayago nuke bertaxiogo
biok biziko bagiña.

*Irigoyen-ek: Orain beste iruna bertso
teman egingo dute ofizioa emanda. Jose
Luis Lecuona Lexoti izango da gizon alar-
guna, eta Kasiano Iburguren emakumea,
ezkondu nai lukeana.*

*Lex.— Azaldu biar emendik orain
norbere pulamentua,
lenago andria banuen baño
gaur alargundutakua
bazterrekuak badakit dula
nere desio naikua
baldin konforme baldin bazera
egingo degu tratua.*

*Ibarg.— Ainbat arrazoi atera bear
nik ere nere aldetik,
ta badakizu zer itz datozen
emakumean burutik,
lengoak alde ein zizun zuri
betiko zere ondotik,
bañan nerekin tratuik ez dago
eiterik emen golpetik.*

Lex.— Lendabiziko gaur gera biyok
ortan tratatzen asiyak,
emakumeak zer asmo'ituzten
gu lendikan ikusiyak,
emango'izkizut arrazoriyak
danak ttuzu mereziyak,
zenbatxo milla ez badituzu
neskame irabaziyak.

Ibarg.—Gizonak beti izan oi digu
olako disparatea
t'esan nezake oi galdetze'na
dala oso arlotea,
ikusten det nik onek dadukan
negana borondatea,
nai lukena da nere irabazik
tabernaetan jatea

Lex.— Beti laneko konforme naz ni,
taberna maite det batez,
andre biarrak gezur esan dit
juan dan aspaldiko partez,
nere itzetan konforma zaitez
oi ez da zuretzat kaltez,
bizitza ona pasa nai bazu
nerekin ezkondu zaitez.

Ibarg.— Amets gaiztoa kendu ta jarri
ai zere barrenean,
nik badakit ba gizona zer dan
ola bear duanean,
txarrak utzita obeko degu
biok konpondu onean,
ta nai badezu ezkonduko gera
garizuma ondorenean.

*Irigoyen-ek: Bukatu dute sayoa Jose
Luis Lecuona Lexoti ta Kasiano Iburgu-
ren-ek. Orain tokatzen zaye Domingo
Garmendia eta Jose Aguirre-ri. Mesedez
urreratu onera biok kantatzeko.*

GARMENDIA ta AGUIRRE

Irigoyen-ek: Puntua Domingo Garmendia-ri.

Zer ekarri dizute
gaur Erregeak?

Garm.—Irigoyen onek ditu
galdera trebeak,
iñoiz izandu dira
egualdi obeak,
gure etxera dirade
allatu gabeak.

Gerri kuriosua,
bular egokiya,
(*Xenpelar*)

Ag.— laister emango dizut
orren erabakiya,
flako xamar nagoela
zaude igarriya,
baña ez nago oraindik
talentuz urriya.

*Irigoyen-ek: Bakoitzak bertso bi egin-
go ditu teman gai librean artuta. Asiera Do-
mingo Garmendiak:*

Garm.—Dudik ez dana bertso berriyak
ertengo dira gugandik,
pentsamentuan babilzkit bañan
ezin asmatu iñundik,
danen aurrean dardarizo bat
sortutzen baizait barrendik,
ainbeste gizon ta emakumezko
ikusten ditut emendik,
guk ikasi gendun izkuntzak
arnasa badu oraindik.

Ag.— Ni're arkitzen naiz izkuntza on-
zerbait esan bearrian, [tan
guztioi itzegiteko nago
borondate samurrian,
ainbat eta ainbat anaya jator
ikusten ditut aurrian,
oindik badago alkartasuna
euskaldunaren lurrian,
berrero asi gera bizitzen
lengo oitura zarrian.

Garm.—Euskaldunaren izena duna
emen bai liteke goza,
neronei ere alegratu zait
triste nedukan biyotza,
orregatikan txoraturikan
luzatuko det abotsa,
ta jai-aldi au ikusirikan
nork artuko ez du poza?
leno arantza ziranak ere
oain biurtu dira arrosa.

Ag.— Askok ez du uste izkuntza onek
ezer baliyo duanikan,
ta nei berriz etzait iruritzen
obiagoik badanikan,
orregatik guk maitatu bear deu
baldin badegu munikan,
nundikan edo nola datorren
ez dago aztarrenikan,
au Jaungoikuak jarriko zuan
munduan aurrenetikan.

Irigoyen-ek: Orain beste iruna bertso egingo dituzte teman. Domingo Garmendia izango da maixua, eta Jose Aguirre piper egin duen mutilla.

*Garm.—*Jaungoikuak ala nai ta ni
maixua nazu munduan,
eta eskola erakustea
besterik ez det goguan,
zu ere txintxo etorri zaitez
garaya dezun orduan,
bestela damu izango dezu
garaya juandakuan.

Ag.— Nik ere jator erantzun nai det
eldu zaitanean txanda,
beonen kulpaz okertu nitzan
leno zintzua nitzan da,
bear bada ez dezute siñistuko
egi garbi au esanda,
piper egiten ipiñi nindun
kaskarrekuak emanda.

Garm.—Nik banekian zer esango zun
bertsuaren asterako,
ta maixu onek kantatuko'izu
konpaziyo baterako
pipar egite oi nola dezun
zere burun kalterako,
nik kaskarrean jotzen nizuan
zerorren mesederako.

Ag.— Esan dizutet nik zeñen kulpaz
egiten dedan oporra,
biotzik ez du gizon onek
benetan baida gogorra,
eskolan erakustean partez
aztindutzen du ziorra,
ikasiko badet beste batena
juatia derriorra.

Garm.—Aldamenetik dantzatze'ituzu
ez dakit zenbat pandango,
au esan gabe leku ontatik
nola ez naizen juango,
nik jarritako leziyok ikasten
beti izan zazu gogo,
ta artaraka kaskarrekorik
iñoiz ez dezu izango.

Ag.— Alperrik ai zea emen bertsotan
sekulako indarrian,
zuk ez dirazu neri portatzen
gizatasun jatorrian,
parranda galantak einda oten
jarri jeniyo txarrian, [zan
ta gero beti deskantsatzen zan
mendekuan bizkarrian.

Irigoyen-ek:

*Bukatu dute Domingo Garmendiak eta
Jose Aguirrek. Orain tokatzen zaye Kos-
me Lizaso eta Jesus Basoarte-ri. Mesedez
urreratu onera biok puntuak ateratzeko
eta kantatzeko.*

LIZASO ta BASOARTE

*Irigoyen-ek: Lendabizi, punta jarri-
ko diogu Kosme Lizasori:*

Oker zuzenik ez da
munduan izaten,

Liz.— garbi esango det danak
aditu dezaten,
Jaungoikuak suerte ona
beti ez du ematen,
Beran borondatia
ein dedilla erten.

Pama ona artu dute
korrikalariyak,

Bas.— Gordon Pyri atzerritik
zaigu etorriya
egin ditu joera
ain parregarriyak,
ori baño geyago da
Arruiz-ko Txikiya.

Irigoyen-ek: Alkarrekin teman bi bertso kantatuko dituzte, gai librea. Asiera Kosme Lizasok:

Liz.— Oraindik ere gaude guztiyak
gure izkuntzan jabeak,
orain gaztiak eta geroago
dakazki arratsaldeak,
Euskalerrriak bertsolariyak
zein baño zein obeak,
berai sendatuko dizkau azkar
euskeran atsekabeak.

Bas.— Euskera maite degualako
gaur gatoz gu Donostira,
eta onuntza ainbat euskaldun
pozikan etorri dira,
gaur bezelako urtean asko
egunak ai balira,
euskera laister jaso liteke
merezi duan tokira.

Liz.— Gure izkuntza nere bizitzan
ez det pakean utziko,
erri ta erbesten dakiguena
garbi adieraziko,
izkuntza geyo maite'itut bañan
bera det lendabiziko,
nik nerekin au gorde nai nuke
nere bizitza guziko.

Bas.— Beste askoren antzean gu're
Jaunak in giñun munduko,
zurruterako griña degu ta
noski ez gera onduko,
ogei urtetan beti tabernan
agure zarren moduko,
ala ta guztiz gure euskera
iñoiz ez degu galduko.

Irigoyen-ek: Ofizioa emango diegu orain eta teman iru bertso bakoitzak egingo dituzte. Kosme Lizaso da ezkondu eziñik dabillen fabrika-langillea eta Jesus Basoarte nagusia.

Liz.— Nik zenbat neskatx gazterik bota izandu diot begiya,
ta, lagun maite, esango dizut
biotz biotzez egiya,
ezkondu nai ta ezin logratu
auxen da gauza egiya,
etzaitelako allegatutzen
fabrikan irabaziya.

Bas.— Langille maite, nere arrazoyak noski emango dizu miña,
esan dezunez ezkondu nai ta
zuk dadukazu eziña,
obrero danak ala daukate,
aizu, jornala berdiña,
zuk e aurrerau bear zendun pix-
zintzua izan baziña. [kat

Liz.— Nik maite maite bat izandu det
aspalditxuan munduan,
ta ura artzeko dirurik ezin
sobraturikan txokuan,
urteak jua da emen nabil
naiz ez omenak goguan,
fabrika utzita ura artzeko
asi ni kontrabanduan.

Bas.— Aizazu, lagun, botako dizut
orain arrazoi garratza,
noski nai dezu nausiya bera
ta zeure burua altza,
zuk dadukazu lanik in nai ez
eta bizimodu latza,
kontrabanduan e izango dezu
beste tokitako antza.

Liz.— Irabazirik ez dadukanak
beti beretzat kaltia,
ta pentsatzen det nik nunbaitera
diruan billa juatia,
ezin utzi det nik bakarrikan
ain biotzeko maitia,
luzatu gabe neana datorla
Jaunaren borondatia.

Bas.— Esposatzeko zuri maite orrek
egiten dizu galdia,
eta zerorrek egiten yozu
beti neretzat kaltia,
esate'izkozun arrazoi danak
Kosme, egiyak al dia?
nik e jornala ematen dizut
lanaren konformidadia.

Irigoyen-ek: Bukatu dute sayoa Kosme Lizaso eta Jesus Basoartek. Orain tokatzen zaye azkeneko, Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki" eta Bizente Mugica. Mesedez urreratu onera.

IZTUETA ta MUGICA

Irigoyen-ek: Atera mesedez puntu banna. (Puska baten ondoren) Jose Migel Iztuetari puntua:

Pyri menderatu du
Arruiz-ko Txikiak,

Izt.— Txikiyak ere motelak
ez dira guztiak,
ni asko poztutzen nau
ori ikustiak,
ara askotan zer gauza
eiten dun aundiak.

Edaririk onena
zein da zuretzako?

Mug.— errespuesta badaukat
gauza orrentzako
bazkari ona eginda
au menderatzeko,
txanpañik gareztina
onena neretzako.

Irigoyen-ek: Orain alkarrekin teman egingo dute, bertso bi bakoitzak, gaia librea. Asiera Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki-k".

Izt.— Nere laguna pozikan dago
zertsu datorkik gogora
baju xamarra ikusitzian
egiten duen mejora,
onek gañetik artutzen nau ta
nik beiratu biar gora,
pozikan ator gaurkuan beintzat
txikiaguan ondora.

Mug.— Nere laguna asi da emen
pentsatakua esaten,
baña onek ainbe estuasun neri
iñork ez baitit ematen,
txikiya baña ni baño geyo
au jan eta eraten,
onen onduan jarritakuan
ez dago ain giro izaten.

Izt.— Nik daukatena egiya da
ez nitzan azi gazterik,
t'arrezkeroztik ez det aditzen
txiki kontua besterik,
egiz aundiya dan arek eztu
beñere aundi usterik,
ta aundiyak ere ni baño geyo
ez dira lurra besterik.

Mug.— Nik zerbait esaten diot baña
ez du egiten atzera,
orrelakuak izketak neurtzen
oso errezak ez dira,
eunen iru aldiz arrimatuaz
mai onaren ertzera,
oinbeste janda orren txikiya
nolatan gelditu zera?

*Irigoyen-ek: Orain ofizioa emanda te-
man egingo dute, iru bertso bakoitzak.
Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki" izango
da sekula praile izan ez dana, eta Bizente
Mugica praile izana bañan konbentutik
ertendakoa.*

Izt.— Nere lagun au atera gabe
zu or zabilta elizan,
andik kanpora ikusten degu
zer itxuretan zabiltzan,
nere iritziz induljentzirik
ez dezu emengo bizitzan,
itxuragaitik joate'ezkeroz
obe zenduke ez izan.

Mug.— Jarriya nauten ofiziyo ontan
prailletarako jakiñan,
gaztetan ori pentsatu eta
konbentura juañan,
nunbait mutiko nota onakin
ibiltzen nitzen dotriñan,
zuk e obe zendun nere antzera
aruntza juañan.

Izt.— Nere laguna, badoakizu
lenokuaren ordaña,
egin zuena aitatu arte
larri izan zera baña,
oni etzayo nunbait gustatu
frailien regla tamaña,
andik bialdu dutenerako
au ez da kristau bikaña.

Mug.— Prailliak izan ere bagaude
amaika olako entzuteko,
bañan bertara juan biar da
bizitza ori ikusteko,
nik biotz aundiya det zuretzat
zu pixkat biurtutzeko,
eunero errezatzen ari naiz
gizataldera etortzeko.

Izt.— Onek edozein engañatzen du
bere izketa otxanaz,
bañan guztiok badakizute
nolakua degun famaz,
bolara batez ibilliya da
au're jantziya sotanaz,
arrezkeroztik atzian ditu
Luzifer eta Satanaz.

Mug.— Nere laguna, gauza txarrak
pentsatze'ituzu buruan,
bañan alare ibilliko naiz
beti zure inguruan,
Jose Migel, errezau zuretzat
ez ai nere ondolik juan,
egunen batez bertotan ein zagun
biok alkarrekin zeruan.

*Irigoyen-ek: Bukatu dute sayoa Jose
Migel Iztueta "Lazkao-Txiki" eta Bizente
Mugikak eta orain Juraduak erabaki bear
du zortzi auetatik seintsuk lau pasatzen
diran aurrera. Mesedez zai egon piska ba-
tean ta erabakia artuko du Juraduak.*

(Juradua kanpora dijoa ta puska baten ondoren atzera etortzen da. Ordun berriz ere Irigoyen-ek):

Juraduak erabakia artu du. Auek pasatzen dira aurrera:

Iztueta "Lazkao-Txiki",

Jose Aguirre,

Lexoti

eta Garmendia.

Beraz lau oyek berriz jokatu bear dute alkarren artean.

Lendabizi, zotza egingo degu eta ateratzen dan ordenan kantatuko dute.

(Beste puska baten ondoren):

Jose Aguirre,

Domingo Garmendia,

Jose Miguel Iztueta

eta Jose Luis Lecuona "Lexoti"

Onera etorri bear dute orain Jose Aguirre eta Domingo Garmendia. Mesedez urreratu onera biok kantatzeko.

AGUIRRE ta GARMENDIA

Irigoyen-ek: Lendabizi, puntua Jose Aguirreri:

Uste degu betiko
 jayuak gerala,
 (*Xenpelar*)

Ag.— Iruitzen zat engañauta
 egongo zerala,
 nik garbi sinisten det
 nola edo ala,
 nunai aitortutzen det
 il bearko detala.

Nekez arrapatzen dik
 tontuak abilla,
 (*Karlisten gerrateko bertsoa*)

Garm.—oraingoz jarri dirazu
 puntu bat umilla,
 gaur bietatikan ere
 izango'ira milla,
 aurrera're olaxe
 jarraitu dedilla.

*Irigoyen-ek: Alkarrekin teman orain
bertso bi bakoitzak, gaya libre dutela.*

Ag.— Ai, Garmendia, asko alaitzen
gaur onuntzara jausita, [naiz
zorionean izan dedilla
gure onerako bisita,
bai al dakizu zer pentsatutzen
nagon oraintxe asita,
euskerama pozik dagola
semeak ola ikusita.

Garm.—Ai, Aguirre, lagunak gera
ez dakit zenbat urtian,
aurreruntz ere segi dezagun
onelako suertian,
etsaya asko izanduarren
gure izkuntzan kaltian,
euskerarikan ez da galduko
gu bizi geran artian.

Ag.— Esan liteke gu geradela
izkuntz onen gidariyak,
gure abotik lertutzen dira
euskeraren mirariyak,
zeruko Aitari egin guztiok
otoitz mardul da ugariyak,
fede ontatxe jarrai dezagun
euskaldun bertsolariyak.

Garm.—Ai, Aguirre, guk ez daukagu
zenbaitek dun ainbat mundu ta
indarrez eta osasunetik
ez egon arren aulduta,
esaten dute leku askotan
euskera dago galduta,
bañan guk au itzegin bear
besterik ez dakigu ta.

Irigoyen-ek: Ofizioa emango diegu orain, eta Aguirre izango da pobrea, eta Garmendia aberatsa; bakoitzak iru bertso teman.

Ag.— Ara, Garmendi, ez deu izan ber jeniyo txar da lizuna,
alkarri ondo laguntzea da
guk degun eginkizuna,
nik ongi dakit zuk diru asko
aspalditik daukazuna,
ni beartsua beti naiz eta
zuk egin laguntasuna.

Garm.—Aitortutzen det, Aguirre maite,
bizi zerala beartsu,
bañan zedorren kulpaz etzaude
mundu ontan zorientsu,
Garmendia onek eskupekoa
len eman izandu dizu,
ta nik emandako txanponak
modu txarren bota'ituzu.

Ag.— Ori esan dezu, Garmendi, baña
ez dizute sinistuko,
ta nere oingo erantzuera
iñoiz etzate aztuko,
zuk emandako propiñarekin
ni ez naiz asko poztuko,
besteri asko zabaldu eta
etziñan aberastuko.

Garm.—Entzute'ituzute Aguirre onek
botatze'itun garraxiyak,
era berdiñekoak ez dira
Garmendian iritziyak,
onek e diru ta etxek bazituen
aita ta amak utziyak,
bera dalako meriyo orain
galduta dauzka guziyak.

Ag.— Beste guztiyan errukiakin
Jesus gurutzean il zan,
eta gu ere bakizu emen
zer posturatan gabiltzan,
ikusten zaitut aundikerian
nola dotore zabiltzan,
pixka pixka bat begira zazu
pobreak nola dabiltzan.

Garm.— Besterentzako jartzen dituzu
arrenbeste eginkizun,
etzait iruitzen nik daukatenik
oinbeste pekatu lizun,
mozkorkeriyen ta juergan
beti onek lasaitasun,
ni ere pobre izango nitzan gaur
zuri segitu banizun.

Irigoyen-ek: Orain bakoitzari lau puntu eman eta bertsoa osatu bearko dute. Lendabizi, Aguirreri: totela, ergela, ustela, motela. Berriz diot: totela, ergela, ustela, motela.

*Ag.— Mundura jayotzatik
ni sortu totela,
orregatikan orain naiz
izlari motela,
ez izanagatikan
jeniyoz ergela,
askotan arkitzen naiz
sarritan ustela.*

*Irigoyen-ek: Garmendiari puntuak,
astua, lastua, nastua, gastua. Berriz diot:
astua, lastua, nastua, gastua.*

*Garm.—Etxian gobernatzen
badaukat astua,
eta janari aula da
arentzat lastua,
baba ematen diot nik
artokin nastua,
ura mantendutzen
badaukat gastua.*

*Irigoyen-ek: Orain tokatzen zaye Jose
Miguel Iztueta eta Jose Luis Lecuona
“Lexotiri”. Mesedez urreratu onera biok.*

V I I

IZTUETA ta LEXOTI

*Irigoyen-ek: Atera mesedez puntua.
(Atera ta gerò): Lendabizi puntua jarri-
ko diogu Jose Migel Iztueta Lazkao-Txi-
kiri:*

Janaririk onena
zein da zuretzako?

Izt.— aukeratzen ezkeru
badaduzkat pranko,
elejitze ori du
gaur norberarentzako,
ollasko erria da
ona neretzako.

Akerraren adarrak
bezela gabilta:

(Xenpelar)

Lex.— bear bezela ateko det
emendikan itza
garaya allegatu da,
nik e nai det mintza,
zu're okerrak zuzentzen
alperrik zabilta.

Irigoyen-ek: Alkarrekin teman egingo dute orain, bertso bi bakoitzak.

Izt.— Goguan al dek, Lexotikoa,
gure errira juanda
zer galdetu un lendabiziko
oraindik gabe itzan da,
izan mesede bein artutzea
bakarrik bizitzen lan da,
neskatxik aber zeguen salgai
bate gabe zeguan da.

Lex.— Ni egin nitzan Lazkao aldera
bein bertso tara iritxi,
neskatx eder bat ikusi nun ta
etziran gustatu gutxi,
ni aspaldiyan ez naiz juan eta
ark artu ber pazientzi,
esan akiyok juango naizela
datorren jayian zortzi.

Izt.— Aber asetzen deguen beraz
Lexotiren egarriya,
bakar aspertu xamar aizela
ala negok igarriya,
naiz bada zarra izanagaitik
ta lori izan gerriya
negu ontarako ez al da gaizki
alako berogarriya.

Lex.— Nik neskatz ura maitatuko det
neure buruen antzian,
ta Laxkao're poztu leiteke
bertsu auxen aditzian,
nik eunez lana ein berko'ut baño
biyok lo in arratsian,
guk ontasunak espero'ttugu
elkarrengana biltzian.

Irigoyen-ek: Orain teman alkarrekin iru bertso bakoitzak. Lazkao-Txiki izango da baserritarra, eta Jose Luis Lecuona "Lexoti" tratantea, bei bat saltzeko daukana.

Izt.— Bei baten eske nabil, Lexoti,
bost illabeten osuan,
ta jakin nai det nere etxera-
ko modukorik dezuan,
len ere zuri erosten dizut
bastante urte askuan,
pobre nago ta eman zaidazu
artu zenduen moduan.

Lex.— Lenago ere oinbeste iten
guk badakigu alkarri,
asko patzeko ez zaudela zu
egiten dizut igerri,
nik negarrikan zure etxian
ez bainuke in nai jarri,
artu prezিয়on emango dizut
bildurrik gabe etorri.

Izt.— Lexoti onen erantzunak gaur
eman dit zenbait apuro,
onek eztena sartutzen ere
iñoiz badaki aguro,
baldin esanez konformatuta
zenbaitzu bosteun bat duro,
orren merkia ematen badit
ajeatua seguro.

Lex.— Nik tranpikerik ez baidet egin
jayo ta orain bitartian,
zeuk esan dezu nola zauden len
bei en baten faltian,
ziriyak sartzen asitzen dana
animarentzat kaltian
preziyoik ere ez dut jarriko
juan da ikusi artian.

Izt.— Ezautzen zaitut, Lexotikua,
juan daneko aspaldiyan,
eta zertako asi zerade
olako zurikeriyan?
zu etzerade ikaratuko
zeure animan kaltian,
oni zerua aztutzen zayo
tratuan asten danian.

Lex.— Nik fama txarrik ez det izan ba
tratantia ni gaur arte,
nere burua bezel bezela
ditut auzokuak maite,
autik pozkeiyan ortik asi da
eta beretzako kalte,
merezi luke ez ematia
lengu pagatu bitarte.

Irigoyen-ek: Lau puntu eman eta bertsoa osatu bear dute. Lendabizi Lazkao-Txikiri: umilla, debilla, abilla, illa. Berriz diot: umilla, debilla, abilla, illa.

*Izt.— Gaurkuan etorri naiz
bastante debilla,
lenago ere ez naiz
izandu abilla,
burun memori txarra
ta biotza illa
konforme ez dagona
or konpon dedilla.*

*Irigoyen-ek: Lexotiri: sasoya, kapo-
ya, goya, arrazoya. Berriz diot: sasoya,
kapoya, goya, arrazoya.*

*Lex.— Nik ere izandu nuen
lenago sasoya,
zerbaitgatican nuen
billatu kapoya,
aren janariyakin
indarrak jo goya,
geroztik nekin daukat
beti arrazoya.*

*Bukatu dute Lazkao-Txikik eta Lexo-
tik, eta laurak. Eta berriz Juràduak era-
bakia artu bear du lau oyetatik zeintsuk
bi pasatzen diran aurrera. Mesedez zai
egon apur batean.*

V I I I

AMERIKETARA DIJOAN SEMEA

(Puska baten ondoren Juradua azaldu bañan Irigoyen-ek alaxe dio):

Juradua ez dator bat eta orduan pentsatu degu laurak berriz probatzea. Gai bat emango degu eta beste irurak "kartzelara" eramango ditugu entzun ez dezaten emen kantatzen dana ta bana banaka berriz etorriko dira gai berak kantatzen, ta orrela obeto probatuko ditugu, Juradua ez baidator bat erabakietan. Lengo ordena berean kantatu bear dute. Jose Aguirrek kantatu bear du lenbizi. Beraz, Juraduko jaunak, eraman beste irurak barrura.

(Beste irurak kanpora joandakoan): Bertso bitan kantatu bear dezu Ameriketara lan billa dijoan seme batek gurasoai eta senideai esango dien agurra eta despeida.

Ag.— Nere buruak beteta daukat
oraintxe pentsamentuaz,
bolara ontan guraso eta
señedeak gogoratuaz,
ama maitea, azi ninduzun
neke aundiyak artuaz,
eta orain urrutiratu
bear amaika leguaz
emen lanikan etzegon eta
Ameriketara guaz.

Ai nere amak bere sabelean
noizbaiten sortu ninduan,
eta geroztik ez dago esateik
zenbat lan zakar ein duan,
oñez eakutsi eta izketan
artuta bere onduan,
aita zarra're neregatikan
eskasiya saminduan,
nik oyen zorrak pagatutzerik
iñoiz ez daukat munduan.

Mesede billa ibilli arren
gerta liteke kaltia,
erabaki det nor ta nai laister
Amerikara juatia,
pena artzen det etxeko danak
utzita aldegitia,
eta danari desiatzeyet
ondo bizi izatia,
zutzaz beñere ez naiz aztuko,
agur amatxo maitia.

Irigoyen-ek: Mesedez ekarri zazute Domingo Garmendia. (Au etorritakoan au esaten dio:) Ameriketaren lan billa dijoan mutil batek gurasoai eta senideai egiten dien agurra eta despeida.

*Garm.— Azken agurra eman bear
au da nere lana,
triste ote' zaudeten
ni antza emana,
bañan juan bearra
gertatzen zaidana
estimatze-omen dute
euskaldunen fama,
ta ondo bizi zaitezte
aita eta ama.*

Onegatik zuek ez artu
gaur zaputza,
nere amets gozo au
ez baita utsa,
ustet garbi ditut
anima korputza,
maiteko't relijiyua
baita ere izkuntza,
ta osasunik balin ba
etorko naiz onuntza.

Aita t'ama zuen biyotza
beti da zabala,
negar malkoak emen
datoz beriala,
ta nik Amerikara
joan bear detala,
an ere biziko al naiz
nola edo ala,
t'an da emen Jainkoak
lagundu dezala.

Irigoyen-ek: Mesedez Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki" ekarri bear dezute. (Etorritakoan): Iru bertsoan kantatu bear dezu Ameriketara lan billa dijoan seme batek gurasoai eta senideai egiten dien agurra eta despedida.

Izt.— Nere lagun maiteak,
senide ta anai,
laister nago barkua
ara artzeko zai,
emen ezin bizi ni
naiz bertan egon nai,
juan baño lenagotik
agur on bat danai.

Juaterako agurtu
nai zaituztet danak,
izan ere latza da
damazkigun planak,
emen utzirik geure
aitak eta amak,
baita'ere jayotzeko
adiskide danak.

Agurtu nai ta au da
gauz zalla dedana,
jakin ezik Ameri-
ketara nuana,
agur aiskide zar da
sorterri laztana,
juaterako besarkada
aundi aundi bana,
agur biyotz barrengo
aita eta ama.

Irigoyen-ek: Ekarri mesedez Jose Luis Lekuona "Lexoti". (Etorritakoan): Iru bertsotan kantatu bear dezu Ameriketara lan billa dijoan seme batek gurasoai eta senideai egiten dien agurra eta despedida.

Lex.— Kantatuko det garbiro gauza nola izan leitekian,
denbora labur ni izango naiz emendikan apartian,
Europarentzat begiyak itxi Amerikako partian,
aitortutzen det nolaz nabillen aspaldiyan lan paltian,
agur gurasuk eta senidik bueltan etorri artian.

Gurasuak e konformaukoya gauza auxen aditzian,
senide onak ere maite'ttut nere buruen antzian,
aitaz pentsatzen egon biarra daukat eun ta arratsian,
Ameriketan dirua zola lagun batek esan zian,
pozaren pozez besarkatuko'ttut nik bueltan etorritzian.

Ameriketan diru atetzen (1)
men da lan egin ta errez,
emen seyatu iten ga baño
orain bitartin ezerrez,
emen geyenak ibiltzen gera
diruarekin aldrebes,
pobriak beti ibilli biar
guk ez degunak negarrez,
an triste irazitakok emen
gastauko'itut gero parrez.

*Irigoyen-ek: Bukatu dute laurak eta
orain juraduak berriz bilduko da ia orain-
goan erabakia artzen duen.*

*(Puska baten ondoren): Erabakia ar-
tu bear zan eta artu da. Aurrera pasatzen
dira Aguirre ta Lexoti. Etorri mesedez
onera biok.*

(1) atetzen = ateratzen; men = omen.

I X

*Irigoyen-ek: Aguirreri puntu bi lenda-
bizi:*

Goizero nai ta nai ez
juan biar lanera

(Bilintx)

Ag.— orrela bai dijua
nere biziera,
olaxe segitu nai
ontatik aurrera,
Jainkuak osasuna ematen
badit lurrera.

Aberatsa ez danik
ez du maite iñork,

(Bilintx)

gauza ori pentsatuta
ez gera bizi danok,
bestela alperrik dira
egindako lanok, —
munduan bizi biar deu
sortuak giñanok.

Irigoyen-ek: Lexotiri puntuak:

Sardiña zarra jan da
gañetikan ura,

Lex.— oi maiz inguratzen da
nere ingurura,
askotan jaten baidet
nik otordu ura,
oaiñ ere jango nuke,
zertan egin dura? (1)

Nik ate bat ipiñi,
orrek maratilla,

(Bertso zarra)

Lex.— propiyo etorriya naiz
gaurkun onen billa,
puntuak jartzen ai dan au
gizona abilla,
orrekin konforme bada
sayatu dedilla.

(1) dura = duda.

Irigoyen-ek: Aguirrek bertso bat botako dio Donostiari.

Ag.— Inpusiuble ez bada nai det
xamurki itzegitea,
orretarako txarra daukat nik
gutxi xamar jakitea,
bañan gaur emen arkitutzen naiz
alaitasunez betea,
sekula etzait nei aztuko,
jaunak, aurtengo urtea,
agur entzule biotzekuak,
agur Donosti maitea.

Irigoyen-ek: Lexotik beste bertso bat Donostiari:

Lex.— Gaur ez dadukat Donosti ontan
goiz etorritako penik,
txoku onentzat oroituko naz
eozin lekutara jonik,
merezi duna esplikatzeke
nik gaur ez daukat kemenik,
munduko berri dakitenari
al'entzun izan diyot nik,
bizitutzeko iñon ez dala
txoko bat politagorik.

Irigoyen-ek: Eta onekin juraduak erabakia artu bear du. Mesedez zai egon apurtxo batean.

(Juradua kanpora joan ta etorritakoan): Gaur txapeldun gelditu da Lexoti, gero Aguirre. Gaur orrela atera da, bannan zortzi bertsolariak diferentzi aundirik ez dute batetik bestera. Beraz, beste baten beste modu batez atera liteke, ez dalako ikusi bertsolari askoz oberik dagoanik bata besteagandik.

Lenbizikoak milla ta bosteun peseta artuko ditu Centro de Atracción y Turismo-koak. Bigarrenak milla peseta eta gainerako guziak zazpireun da berrogei ta amar peseta, eta gazteenentzat (Basparte) Zubiria jaunak eman duen kopa.

Eta berandu dan ezkerro bazkaltzera goaz guziok gero arratsaldean iru t'erdietan puntu puntuan asteko, goiz bukatu bear degu eta puntu puntuan astinai genduke. Gero arte.

ARRATSALDEKO SAYOA

Basarri

Uztapide

Xalbador

Azpillaga

A G U R R A

Irigoyen-ek:

Arratsaldeon! Gaur arratsaldean —goizekoa bukatu da ta—Basarri ta Xalbador Uztapide ta Azpillagaren kontra arituko dira, bi biren kontra.

Zotza egingo degu lenbizi Basarri ta Uztapideren artean, zer parejarik tokatzen zayon lenbizi kantatzea jakiteko.

(Txapel batetik bakoitzak papertxo bana ateratzen du).

Basarriren parejak du asiera eta gero Uztapiderenak segitu.

Lenbizi, Basarrik egingo du agurra, gero Uztapidek, gero Xalbadorrek eta gero Azpillagak.

Mesedez, Basarri, etorri mikrofonora agurra botatzeko.

BASARRI

Gaurko egunez iru Erregek
izarra zuten gidari,
gaur Donostia illun zegon da
bear gendun izar ori,
lendabiziko itz erditxo bat
Basarri onek danori,
urte berri on izan zazute,
ekin aurretik lanari.

UZTAPIDE

Nik ere zerbait esan bearra
batek ez du esan dena,
badakizute beste iru ere
orretarako gaudena,
iru Erregeak Jesusengana
badijuazte Belena,
gu're Arekin izan gaitezen.
Ua da gidari onena.

XALBADOR

Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean asi bearra,
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiren par-parean
gelditu zeraut izarra.

AZPILLAGA

Lau bertsolari etorri gera
kantari geren bertsuak,
argitasunik ematen badu
Jesus Jaun amorosuak,
urte berrian artu ditugu
azkenerako pausuak,
anai maiteak, euskerarentzat
zabaldu zuen besuak.

I I

PELOTARIAK

Irigoyen-ek: Orain asiko da desafioa bi biren kontra. Mesedez urreratu mikrofono ontara Basarri ta Xalbador eta beste ortara Uztapide eta Azpillaga.

Laurak izango dira pelotariak, partidua jokatu dute bi biren kontra, Basarrik eta Xalbadorrek, Uztapide eta Azpillagaren kontra, eta Basarrik eta Xalbadorrek irabazi dute.

Lenbizi kantatuko du Basarrik, gero Uztapidek, gero Xalbadorrek eta gero Azpillagak. Iru bertso bakoitzak. Asiera Basarrik emango du:

Basar.—Asi biar da, jartzen dituzte
emen istillu gorriyak,
gu zein giñaden ikusitzera
plazara asko etorriyak,
sendo dauzkagu besuak eta
bigun belaun da gerriyak,
oyek zeukaten fama baña
gu gera pelotariyak.

Uztap.—Partidu orrek irauna zuen
oso denbora luzian,
bear bezela gorputzetik e
ez bainegon ni goizian,
bañan alare bikote ori
ez da ibilli jolasian,
galduko zuten baldin pelotak
guriak izan bazian.

Xalb.— Aitzakiaren ematen laster
ondotik zaizkigu asi,
partida galdu ta fama ere
juango dela igesi,
goizian azkar ziraden bainan
indarra etzayote azi,
alegiñak egin ere bainan
ez daukute irabazi.

Azpill.— Gaurko goizian jardunak gera
indar aundiko lanian,
alkar probatu bearra dago
epoka daguanian,
pelotak ere ariñak izan
dira gaurko egunian,
obeto proba bearra degu
buelta etortzen danian.

Basar.—Aizu, Xalbador bueltaren billa
dago Azpillaga asiya,
erantzun ere egin bear diyo
aora datorren guziya,
beren pelota gustokua
ez dutela ibilliya,
galtzen duenak beti izaten du
zerbaiten aitzekiya.

Uztap.—Oraindik ere bikotetxo au
jokatutzeko gauza da,
bat irabazi ta arrotzia
berriz oso eskasa da,
baldin da berriz juaten bagera
bi oyen kontra plazara,
ez dute asko pentsatzen baño
a zer nolako pasara.

Xalb.— Partida ori asi zeneko
jarri ziren bildurrean,
gero bai lotu ere bizkorki
gu bentzutu bearrean,
arras patxara gaixtuan zauden
erdietan an lurrean,
ta ni gibeletikan ez txarra,
Basarri ona aurrean.

Azpill.— Pelotagatik eraman dute
dana orien graziyak,
nik atzetikan eraman ditut
etorri diran guziyak,
nere lagunak tranpa asko ditu
Atanori ikasiyak,
pelotagatik izan ez balitz
gu giñaden nagusiyak.

Basar.—Partidu ori nolakua zan
nik ez dadukat aztua,
guri txaloka arrotu baitzan
gañeko jende prestua,
ai Xalbadorri ta Basarriri
galtze'ezpazaye eskua,
len galdu dunak berriro ere
izango du arriskua.

Uztap.—Pentsatu ez gerala bildurtzen
biarko edo etziko
beste bat jokatu gabe beintzat
guk eztiogu utziko,
oyen txapela iduritzen zait
oso denbora gutxiko,
urrengo jokatutzen deguna
ez dute irabaziko.

Xalb.— Zure idaya zuk erakutsi
oi bertsu nabarmenean,
biotzetikan min daukazula
erran duzu azkenean,
bainan gu ere orainik ere
ez gaude zuen menean,
berriz partida jokatuko da
zuek nai dezutenean.

Azpill.— Gu bikote bat egiñak gaude
zarra eta gazteriak
bañan ez dira ondo probatu
geren abilidadiak,
zer ziran nere lagunak zitun
boleak eta aidiak?
berriro jokatutzen badegu
gu gera, adiskidiak.

I I I

MUSLARIAK

*Irigoyen-ek: Orain musean jokatu-
dute. Badakizute, jokoan tranpak eta ola-
koak egin ditezke, eta nola zotzean Basa-
rriri tokatu zayo lenbizikoa, Basarrik dau-
ka eskua. Iru bertso bakoitzak.*

Basar.—Musian aстера guaz
eta egon erne,
esan biarra daukat
gauza auxere,
Xalbador, kontrariyo
txit gaiztuak daude,
zuk gezurra jo zazu
bildurrikan gabe.

Uztap.—Iñoiz probatu ditut
jokolai obeak,
eta nik badakizkit
museko legeak,
aundi kontuan beintzat
gu gera jabeak.
eskuan emen dauzkat
iru erregeak.

Xalb.—Zoñek dezake aueri
partida ekendu,
Uztapidek eskuetan
jokua omen du,
nik gaizki eginak otoi,
Basarri, konpondu,
bainan gezur guziak
utzi ene kondu.

Azpill.—Basarrik asieran
sartu digu anka,
gezurrakin gaur egin
nai bazigun tranpa,
nik erabaki nai det
egiya esanta,
Uztapidek iru errege,
nik ogei ta amaika.

Basar.—Azpillaga ikaratu da
nik gezurra esanta,
jokua irabaziya
daduka botata,
bañan orain emango det
arrazoi galanta,
errege baño txikiako
obia da bata.

Uztap.—Basarri txikian da
ain gradu bajuan
bestela're Azpillagari
esatera nijuan,
badakizu zer egin bear
dezun orain, Juan,
txikiyari utzi ta
jokoraño juan.

Xalb.—Baduela dionak
berdin bat ere eztu,
yokoan nior ezpaita
nehoiz aski prestu,
etzazutela ibili
orrenbertze yestu,
beldurra iduki gutaz
nola gauden esku.

Azpill.—Oraingo joko legiak
dirade guriak,
ondo azaldu dizkit
lagun aguriak,
danak sufritu beai-
tu jokolariak,
ogei ta amaika ta
gañera dubliak.

Bas.— Xalbador, ez ikaratu
ori entzunagatik,
ogei ta amaika ta duble
orrek eztu tutik,
ez du botako eta
ez dago disputik,
ogei ta amairukin ordo
jo zazu eskutik.

Uztap.—Musian aritzen gera
udara ta negu,
gezur batzuegatik
ez bildurtzen gaur gu,
bikote oni amaika
entzuten diogu,
kartak azaldutzian
ikusiko degu.

Xalb.— Museko berri badakit
nik ere lenago,
zonbait partida tabernan
yokaturik nago,
Uztapide erregez
beterik badago,
aundia tira zazu ta
txikira ordago.

Azpill.—Eskuan zer genduan
nai det erakutsi,
benetan jokatu det
ta gezurra gutxi,
emen egin deguna
nai bada ikusi,
pelotan galdu baño
musean nagusi.

I V

GUARDIA-ZIBILLAK ETA IJITUAK

Irigoyen-ek: Bukatu dute musean eta orain Basarri eta Xalbador izango dira guardia-zibillak, eta Uztapide eta Azpillaga ijituak. Ain zuzen ere gaurko egunez olloak ostu dira errian.

Asiera Basarrik emango dio, gero Uztapidek segitu, gero Xalbadorrek eta gero Azpillagak. Iru bertso bakoitzak.

Basar.—Artu ditugulako
guarda-zibil graduak,
gu falta geralako
bartzarrak galduak,
basarritar asko daude
oso arrituak,
garbitu biar ditugu
laister ijituak.

Uztap.—Ijituak ere zerbait
esan bearra dauka,
kartzela izango degu
edo bestela multa,
ollua eraman dute
erritik ostuta,
besten batek ein du baño
gaur're gure kulpa.

Xalb.—Ukatzen dauku bainan
ez diot sinegin,
ez ditaike fidatu
ijito auekin,
auen kondenatzea
etzaye atsegin
etzioten ez erranen
len ez balute egin.

Azpill.—Kargak etortzen dira
lepua betian,
guardia-zibillak jendia
jarri nai pakian,
olluak ostu dituzte
baserrin batian,
ta berak izan dira
gure aitzekian.

Basar.—Ijituakin ezta
biar errukirik,
auek izanakin ezta
bate ganantzirik
odolak irakiten du
berak ikusirik,
ez dakit nola uzten
diegun bizirik.

Uztap.—Abek daukatelako
armaren indarra,
askotan berotutzen
digute bizkarra,
guk e berriz nolabait
degu bizi bearra,
baña izena bakarrik
dadukagu txarra.

Xalb.— Gaurko egunaz ibili
len iru Errege,
gu noiz eginen gira ba
ijitoen yabe,
gu lotan gaudelarik
ostutzen ai driade
portatzen zerauzkigu
Herodesen pare.

Azpill.—Basarrik biziya ere
eskatu du lenen,
pentsa zazu, laguna,
zertarako gauden,
orain arteko danak
ez badira onen (I)
gu baño txarraguak
badabiltza emen.

Basar. Izena dutela txarra
ari dira esaten,
okerraguak eztira
ez asko izaten,
egunez ikusiya
gabez eramaten,
probatuak badaki
zuek zer zeraten.

(I) Au ez dago arian garbi artua.

Uztap.—Jartzen ai zerate guri
gogotik ordenak,
baiña zuek e zerate
gizon nabarmenak,
gazte sasoikuak da
gañera lerdanak,
lanik ez eitearren or nun
sartu zeratenak.

Xalb. Ijitoaren esana
sartu zeraut barna,
eztut nehoiz ahantziko
ordu iragana,
nundik atera ote da
yaun orren esana,
ijitoen zaitzea
ez ahal da lana?

Azpill.—Kulpa gabe zeinbat golpe
arturik lepuan,
olluak e guregan
dirade gaurkuan,
berak ordu asko guardi-
an egin kanpuan,
eurak osten ditue
gu geralakuan.

V

ZURIAK ETA BELTZAK

Irigoyen-ek: Bukatu dute guardia-zibillen eta ijitoen sayoa, eta orain Basarri eta Xalbador izango dira Europako gizon zuria, eta Uztapide eta Azpillaga Afrikako beltzak. Iru bertso bakoitzak .

Basar.—Ez nuke naiko itz erditxo bat
 emen oker esaterik,
 gizaldi onek izan ote du
 orain añako kalterik?
 beltz amorratu auek dauzkagu
 gorroto biziz beterik,
 ta era ontan gaurko munduan
 ez leike izan pakerik.

Uztap.—Lenago ere era onetan
gertatu izan naiz sarri,
ta nik zer dakit Europako ta
Afrika aldeko berri?
baña guria kendutzia da
nor ta nai gure galgarri,
ta guk geureak ditugun gauzak
kendutzerara ez etorri.

Xalb.—Maizenik gaitzez pagatua da
munduan ongi egina,
beltz oyek zer izanen ziren
gu saiatu ez bagina?
guk egin dazkogun ongiak
auexek guti estima,
larrua beltza izatea gutxi,
beltza're dute arima.

Azpill.—Onu deritxon batxalde ortan
zer zeguan banekian,
anima beltza dadukagula
beren agua betian,
ta ala ere au esaten det
pixkat gogora zaitian,
gerraren billa ezpazabiltza
utzi zaiguzu pakian.

Basar.—Nere buruan pasia dago
auxe zazpi milla aldiz,
atzeratuta daude auek eta
bestiak olaxe gabiliz,
Afrikak pixkat luzitu badu
Europatarren izardiz,
alkar janez or zebiltzan danak
zuririk izan ez balitz.

Uztap.—Zuriya, gero etzazu itzezin
tamaña orretan zakar,
berts'orrek orain segitutikan
beltzen erantzuna dakar,
zerbait jateko dagon lekura
zuek juaten zerate azkar,
da mai utsian gelditutzian
jango zenduteke alkar.

Xalb.—Auen laguntzen ari izan gira
gu lanarekin borroka,
esan ditaike kendu ginuen
auen lepotikan soka,
orain goratu ditugu eta
beren poza ezin koka,
gure ongia guri ordainduz
puñalka eta tiroka.

Azpill.—Lurtalde ayek guriak dira
jatorriz da berezkuak,
aztuak daude berdiñak egin
ginduztela Jaungoikuak,
Pilatos jaunak bezelaxenik
garbitze'induzte eskuak,
gorputzetikan zuriyak baño
animatik burnizkuak.

Basar.—Beltz auri zer gertatzen zayen
garbi esan nai nuke nik,
beren buruen jabe izateko
eztadukate ordenik,
Kongo-ko berri etzan jakiten
Beljikan mende egonik,
eta libratu ziran ezkerok
egun bat ez dute onik.

Uztap.—Berriro ere entzun zazute
Kongoko beltzen ertera,
abek diote galtzen ariko
gerala urtetik urtera,
nik diotena gure lurretik
bear dezute atera,
gure errukirik etzazute izan
konforme baldin bagera.

Xalb.—Mundu hunetan bai yende batek
balio baitu yendea,
nahiz orren gezurtatzen
asi zeraukun mendea,
badakit bai nik zuri edo beltz
denek bear dugu gurea,
bainan zuek e otoi ikasi
Yenko Yaunaren legea.

Azpill.—Beren iritxiz zuriak dira
burudunak ta listuak,
baña Afrikan jartzen dizkiguz
txit bizibide estuak,
orregatikan alderdi danak
arkitzen dira nastuak,
beltzak aurrean ipiñi baiña
zuriak dira gaiztuak.

V I

P U N T U A N

*Irigoyen-ek: Orain bakoitzari puntu
bana ipiñiko diogu. Lenbizi, Basarriri
puntu:*

Senarra mozkortzian
etxian musika

(Xenpelar)

Basar.—era ortan badabilz
oraintxe amaika,
batzutan azpikerian
bestietan gainka
nere andrerik ez dabil
gizonai segika.

Ardua maitatzen det
andrearen partez,
(*Txirrita*)

Uztap.—ori egingo banu
neretzako kaltez,
andriarentzako nago
beti borondatez,
ardo utsa izatekoz
nayago det batez.

Edari gustokoa
matsaren zumua,
(*Bertso zarrak*)

Xalb.— laister pentsatu dezu
zuk ene asmua,
baiñan emen ez dagola
daukat nik damua,
libre uzten banauzu
edatera nua.

Mozkortuagatikan
zalla da erortzen,

Azpill.—asko ibiltzen dira
parrandan mozkortzen,
etxian sobratzen diran
guziak gastatzen,
olakuak emazterik
ez du estimatzen.

Irigoyen-ek: Lendabizi, Basarrik asiko du, Uztapidek segitu, Xalbadorrek gero ta Azpillagak bukatu. Gero Uztapidek berriz emango du puntua, beste guziak segitu; gero Xalbadorrek eta gero Azpillagak.

Basarri, lenbizi puntua jarri:

Basar.—Jarriko al diogu
alkarri puntua?

Uztap.—nork erantzungo duen
iduki kontua,

Xalb.—leku onean da gaur
Xalbador tontua,

Azpill.—orain argitzen ari da
nere talentua.

Uztap.—Puntu txarrikan iñork
ez jarri alkarri,

Xalb.— zu honek ez duzuia
txarrena ezarri,

Azpill.—neretzako uste gabe
egin da etorri, (1)

Basar.—nik beintzat asmo txarrik
gaur ez det ekarri.

Xalb.— Zer eingo ote degu
gu lauen artean?

Azpill.—egiñak egin eta
etxera pakean,

Basar.—ondo bildu bear degu
aurtengo urtean,

Uztap.—da denbora badijua
bien bitartean.

(1) Alaxe izan zan, bere uste gabean jarri zio-
ten mikrofonoa aurrean.

Azpill.—Urte berria asi da
patxara onean

Basar.—lau bertsolari ai gera
ementxe lanean,

Uztap.—a zer lagunak dauzkaten
gaur aldamenean,

Xalb.—emen baño obeki ginen
lehen mahainean.

*Irigoyen-ek: Bukatu dute sayoa bi pa-
rejak eta orain juradoak segundo batean
erabaki bat artuko.*

*(Juradua kanpora dijoa ta atzera eto-
rritakoan): Juraduak dio bi bikoteak
berdin berdiñean gelditu dirala.*

V I I

ANTONIO ARRUE JAUNAREN ITZAK

Urte onen azken aldian, eta ziur asko toki ontan bertan, jokatuko da, Jaungoikoak nai badu, eta orain urte bete bezela, Euskalerrri osoko bertsolari guztien txapelketa nagusia.

Beraz, ordu arte, ta bitartean izan zaitzte euskaldunak. Guziok badakizute ongi zer esan nai duan euskaldun itzak. Euskaldun itzak esan nai du noski, euskera duana, euskera dakiana, euskeraz mintzatzen dana, euskeraz itzegiten duana...

Beragatik, eta gaurko euskal jai-aldi eder oni bukaera egoki bat emateko, Pello Mari Otaño zanak bein batez bertso-

*tan bere semeari esan zion bezela, nik ere
esango dizutet zuei, entzule guziori eta ba-
koitzari, Euskaltzaindiaren izenean, bio-
tzez biotz:*

gaur neri entzuna,
ez dezazula aztu
itz baterako au da
eskatzen zaizuna,
izan zaitez nun nai ta
beti euskalduna.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.

6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*

RAMUNTZO, iru egintza ta sei laukidun
antzerkia.

7.—*Ramos Azkarate*

GALTZAUNDI ta beste bertso asko.

8.—*Antero Apaolaza*

PATXIKO TXERREN. (Nobela).

9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*

OROITZAK (Ipuyak)

10.—*Bertsolariak*

ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA



1027895

JB-885

